



**2018KO OTSAILAREN 9KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren bederatzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Joseba Imanol Aran Barandiaran.

Aktan adieraziko da Marian Zufiria Apeztegia zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko urtarrilaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Marian Zufiria Apeztegia zinegotzia bertaratu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 148 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteen dagoena, ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMO (7.883,83 €)takoa eta 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteen dagoena, HOGEITA SEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (26.587,96 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- SAN INAZIOKO ESPALIOA BERRITZE LANEN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Inazio kaleko espalioen konponketa lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak lanen laugarren obra egiaztagiria egin du. Laugarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa HAMAIIKA MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (11.551,65 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Otegi Gaztañaga S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

IV.- SAN PRUDENTZIO 15-23KO BERRURBANIZAZIO LANEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio 15-23 guneko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Idoia Goenaga eta Garikoitz Alkorta arkitektoek eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak

lanen 3. obra egiaztagiria egin dute. Hirugarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HEMEZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA SEI EURO ETA HAMAR ZENTIMO (118.806,10 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Artzamendi S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOAK.-

- Konputagailu pertsonalen hornidura.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, konputagailu pertsonalen hornikuntza egitea kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez konputagailu pertsonalen hornikuntza egitea kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeke konpromisoa hartzea.

VI.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.-

Lazkaoko Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko otsailaren 24an egindako bilkuran hartutako akordio bidez, 2017-2019 epealdirako diru laguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Orain, hainbat aldaketa sartu nahi direlako, plan estrategiko hori aldatzea planteatzen da.

Hau honela, eta planteatutako aldaketak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, 2017-2019 epealdirako Lazkaoko Udalaren diru laguntzak emateke plan estrategikokoaren aldaketa hau, bere espedientearen aurkitzen den dokumentazioan jasotzen dena, onartzea erabakitzen du.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-



Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 12-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 2 ordutik 2 ordu eta erdira, etxeko garbiketetan onuradunak laguntza handiagoa behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarrietik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea, urtarrietik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 17-01-013 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea urtarrietik, onuradunaren diru sarrerak aldatu direlako.
- 17-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntzatik baja ematea otsailetik, polizia nazionalaren ikerketapean egoteagatik.

Esku hartze familiarra.-

- 16-15-01 zbk.dun esped.: esku hartze familiarren intentsitatea murriztea otsailetik. Hemendik aurrerako 2018 urterako kostua 3.959,58 € izango da.

Laguntzaile gazteentzat bekak.-

2018. urterako Lazkaoko Laguntzaile Gazteentzat Beka deialdia egitea.

VIII.- HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Hezkuntza eta Euskerako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako diru laguntza hau onartu du:

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2018 urterako udal aurrekontuan izendatutako diru laguntzaren erdia ematea, hau da, 25.000 €.

IX.- GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU LAGUNTZAK: OINARRIAK ETA 2018KO DEIALDIA .-

Udal honek, herriko gazteei beraien emantzipazioan laguntzeko, etxebizitzak alokatzeko diru laguntzak eman nahi ditu.

Hau honela, diru laguntza hauek arautuko dituzten oinarriak eta diru laguntza hauek emateko 2018 urterako deialdia prestatu ditu, eta horixe da Tokiko Gobernu Batzar honen aurrera aurkezten dena bere onarpenerako.



Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du ekimena ondo ikusten dutela baina gai honen inguruan bere taldean egiten ari diren lanketa oraindik amaitu gabe dutela eta amaitzen dutenean behar bada ekarpenak egingo dizkiotela eta hori horrela izanda une honetan ezin diotela baiezkoa eman eta abstenitu egingo direla.

Alkateak esaten dio gai honek denbora daramala lehen ere, eta geroago ere ekarpenak egiten badituzte hauek ondo hartuak izango direla eta egokia ikusten badira egin beharreko aldaketak egingo direla.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako boturik gabe eta 2 abstentziaz (EH Bildu) honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Aurreko puntuan onartutako oinarriek arautzen dituzten diru laguntzen 2018ko deialdia egitea.

X.- MERKATAL JARDUERA BERRI ETA EGOKITZEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK: OINARRIAK ETA 2018KO DEIALDIA.-

Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berri eta modernizatzeko diru laguntzak eman nahi dira aurten ere 2016 eta 2017 ekitaldietan egin den modura eta hau horrela Etxebizitza eta Ekonomia Jarduera Batzordeak diru laguntza hauek arautuko dituen oinarriak, eta 2018ko ekitaldirako deialdia onartzea proposatzen du. Bai oinarriak bai deialdi dokumentuak, beren espedientean aurkitzen dira.

Deialdi honetan banatzeko diru laguntzen guztirako gehienezko zenbatekoa 10.000 €tan finkatzen da.

Guzti hau honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Diru laguntza honen oinarriak eta 2018ko deialdia hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Onarpen hau jende aurrean jartzea iragarkiak 30 lanegunetako denboraldian Udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkarian argitaratuz.
- 3.- Jendaurreko erakustaldi epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikotzat hartutakoa joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta zazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

